



**Unibertsitate-zentroyen akreditazio instituzionaleko protokoloen esparruan HAINBAT  
ZENTROTAN EMANDAKO TITULUEN KASUAK EBALUATZEKO PROZEDURA**

Uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretuaren arabera, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu eta baimentzeari eta unibertsitate-zentroyen egiaztapen instituzionalari buruzkoa, eta martxoaren 3ko Ebazpenaren, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiarenaren, arabera; unibertsitate-zentro publiko eta pribatuetako akreditazio instituzionalerako prozedurari buruzko jarraibideak ematen ditu eta unibertsitate-zentroetako kalitatea bermatzeko barne-sistemak ziurtatzeko protokoloa eta unibertsitate-zentroyen akreditazio instituzionala berritzeko ebaluazio-prozedurarako protokoloa argitaratzen ditu —Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorrak onetsiak biak—

2022ko apirilaren 29ko REACUren bileran onartutakoa

## Akreditazio Instituzionala eta hainbat zentrotan emandako tituluak

Unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, aitortu eta baimentzeari eta unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionalari buruzko uztailaren 27ko 640/2021 Errege Dekretuak, hauxe ezartzen du 14.11 artikuluan:

*Ebaluazio-agentziek, unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionalerako protokoloen bidez, prozedura zehatz bat adostuko dute, bi zentrok edo gehiagok sustaturiko baterako tituluetarako, izan zentrootik unibertsitate berekoak, izan desberdinetakoak.*

Era berean, 2022ko martxoaren 3ko Ebazpenak, Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiarenak, hauxe ezartzen du 2.3, 4 eta 5 epigrafeetan —unibertsitate-zentro publiko eta pribatuak akreditazio instituzionalerako prozedurari buruzko jarraibideak ematen ditu eta unibertsitate-zentroetako kalitatea bermatzeko barne-sistemak ziurtatzeko protokoloa eta unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionala berritzeko ebaluazio-prozedurarako protokoloa argitaratzen ditu, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorra onetsiak biak—:

*Ebaluazio-agentziek, unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionalerako protokoloen bidez, prozedura zehatz bat adostuko dute bi zentrotan edo gehiagotan (izan unibertsitate berekoak, izan desberdinetakoak) ematen diren eta akreditazio instituzionala duten zentroetako tituluak ebaluatzeko.*

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak (aurrerantzean, 822/2021 EDa), xedatutakoaren arabera, egoera hauetakoren batean egon daitezke xedapen horiek aipatzen dituzten tituluak, bi zentrotan edo gehiagotan emanak:

- Unibertsitate arteko titulu bateratuak, unibertsitate-titulu ofizial bat lortzeko unibertsitateen artean ikasketa-plan bateratu gisa taxutuak, ikasketa-planaren memoriari erantsitako hitzarmen baten bidez.

Horien artean tratamendu berezia merezi dute Espainiako unibertsitate baten edo gehiagoren eta atzerriko unibertsitate baten edo batzuen arteko nazioarteko titulu bateratuek, eta, bereziki, Europako Batzordearen Europako Unibertsitate Programen esparruan gauzatzen direnek, bai eta Erasmus Mundus nazioarteko titulu bateratuek ere.

- Unibertsitate batek bi zentrotan edo gehiagotan —berek edo atxikiak— emandako tituluak.

## Unibertsitate arteko titulu bateratuak

Unibertsitate arteko titulu bateratuen kasuan, ikasketa-plana konfiguratzeko duen hitzarmenean erabakiko da zein unibertsitatek jardungo duen kalitatea bermatzeko prozeduren koordinatzaile- eta arduradun-lanetan, guztia ere 822/2021 EDaren 4.5 artikularekin bat etorritz. Beraz:

- Unibertsitate-zentroen akreditazio instituzionalerako baldintza betetzeari dagokionez, unibertsitate koordinatzailearen zentroan bakarrik zenbatuko dira unibertsitate arteko titulu bateratuak.
- Unibertsitate arteko titulu bateratu baten unibertsitate koordinatzailearen zentroak akreditazio instituzionalak lortzeak titulu horren egiaztapena berritzea eragingo du.

### Nazioarteko unibertsitate arteko titulu bateratuak

Bereziki, nazioarteko titulu bateratuak, Europako Batzordearen Europako Unibertsitate Programen esparruko titulu bateratuak edo Erasmus Mundus zigiluarekin emaniko titulu bateratuak direnean (822/2021 EDaren seigarren, zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriek arautuak, hurrenez hurren), Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 3ko Ebazpenaren 1.a) eta 2.3 idatz-zatiek zehazten dutenarekin bat etorritz:

- Titulu horiek ez dira sartuko egiaztapena berritu duten tituluen erdian betekizunaren zenbaketan.
- Titulu horiek ematen diren unibertsitate-zentroaren akreditazio instituzionalak ez du ekarriko titulu horien egiaztapena berritzea.

## Unibertsitate batek zenbait zentrotan emandako tituluak

Unibertsitate batek bi zentrotan edo gehiagotan ematen dituen tituluen kasuan:

- Titulu horien egiaztapena kalitatea bermatzeko agentzia batek berritu beharko du, edo kalitatea bermatzeko agentzia batek aldeko jarraipen-txostena eman beharko du (titulua ematen duen zentro bakoitzari buruz), eta, dagokionean, kanpoko bisita bat ere egin beharko da, zentroak akreditazio instituzionala eskatzerik izan dezaten.
- Titulua ematen duen zentroetako batek akreditazio instituzionala lortzeak titulu horren egiaztapena berritzea ekarriko du, ematen den zentro guztietan.